

Guggenheim Urdaibai makroproiektuaren kontra mobilizatu dira hainbat herritar

BUSTIALDEKO HITZA/LA HAINE :: 31/10/2023

Larunbatean Guggenheim Urdaibai Stop plataformak deituta, 4.000 herritar inguru bildu ziren Gernika-Lumon.

Guggenheim Urdaibai Stop plataformak deituta, ehunka eta ehunka herritar elkartu dira ziren urriak 28an Gernika-Lumoko Pasealekuan. Guggenheim Urdaibai makroproiektuaren kontrako ezezko irmoa berresteko **manifestazio zaratatsua** egin dute, 18:00retan hasita. Ordu hori baino lehen, ostera, jadanik kaleetan aldarrikapen usaina sumatu zitekeen: pankarta, bandera eta parekoak nagusi ziren. Herritarrek eta **proiektuaren aurkako ezezko borobila** ozen aldarrikatu dute hainbat eragile.

Gernika-Lumoko herriguneko erdialdea zeharkatzeaz gain, proiektuaren tentakuluetako batetik, **Dalia** faktoriatik, hurre ere pasatu dira. Herritarren sugea luzea izan da oso: **jende pila bat** bildu da aldarrikapenera, proiektuarekiko gaitzespena erakustera. Gainera, aipatutako herritar plataforma osatzen duten kideek euren **manifestua** irakurri dute. Aitor Etxebarriazarraga gernika-lumotarra izan da, hain zuzen ere, hori egiteko ardura eduki duena. Ezer baino lehen, argi eta garbi laga gura izan du proiektua **Guggenheim Fundazioak** proposatu eta hauspotu duela, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta espainiar estatuaren babespean. Beste berba batez: **“Premia pribatu bati”** erantzuna emanez eta **“inposizio osoz”** egin dura dutela.

Administrazio publikoak proiektuaren inguruabarretan “guztiz inplikaturik” dauden arren, argitu dute proiektua ez dela “inondik inora ere publikoa”: “Bakar batzuen burutapenak gauzatzeko eta poltsiko jakin batzuk betetzeko, **guztion dirua** baliatu gura dute”. Era berean, bertsolari gernika-lumotarrak azaldu du proiektua Urdaibai Biosfera Erreserbak eskatzen dituen erronkak eta planifikazioa nahiz ordenamendua **kontuan eduki barik** abiatu gura dutela: “Biosferaren beharrianen kontra joko du, babes bereziko eremuetan **presio are handiagoa** egingo baitu; parte hartze ereduari dagokionez, planteamendua ez dute egingo XXI. mendean espero daitekeen **parte hartzeagaz** eta, noski, ez dator bat bat eskualdearen beharrian errealekin”.

Ondorioak, aurrekari. Plataformako kideak emandako datuetako batek bertaratutakoen ahotsak altzarazi ditu: “Aurreikuspenen arabera, **140.000 bisitari** izango ditugu urtero-urtero, udako hiru hilabeteetan. Turista uriola horrek desiragarriak ez diren **ondorioak** ekarri ditu; larriki eragingo die mugikortasunari, etxebizitzaren prezioei, eguneroko bizimoldeari, hizkuntzari edota kulturari”. Gaztelugatxeko kasua plazaratu dute, hori argudiatze aldera.

Eskualdearen etorkizuna **“guztion artean” eraiki beharra** azpimarratu du Etxebarriazarragak. “Etorkizun horrek **pertsonen bizitza eta natura erdigunean** eduki beharko ditu; dena ez da dirua, Urdaibai ez dago salgai”. Bilbo, Gasteiz ezein New Yorkeko

bulegoak “oso urrun” dauden arren, euren ahotsak ozen entzutea bilatu dute, administrazio publikoei eta agintari politikoei **eskaera “zuzen eta zehatza”** eginez: “Geratu bihar bertan zentzurik gabeko proiektu suntsitzaile eta zapaltzaile hau”.

Foruen Plazan amaitu dute manifestazio zaratatsua, udalerriko kaleak dezibelez bete ostean. Egitasmoaren **amaiera ekitaldiak**, baina, gailurra jo du. Palestinarekiko elkartasuna adierazi ondoren, **Koldo Gezuraga** eta **Janire Arrizabalaga** Lilibertsoko partaideek bertso bana bota dute; jarraian, **Gatom** musikari bermeotarrak bertaratutakoak aldarrikapen dantza batean ipini ditu.; ostean, Guggenheim Urdaibai Stop plataformako kide bik, **Aitor Etxebarriazarraga** gernika-lumotarrak eta **Ana Urrutia** bakiotarrak hartu dute hitza. Azkenik, aurretiaz banatutako bertsopaperak eskutan hartu dituzte herritarrek, eta ahio batez abestu dute Etxebarriazarragaren letra eta Indalezio Bizkarrondo Ureña *Bilintx* bertsolariaren sinadurapeko doinua duen **Loriak udan intza bezala**. Udalerrri edota eskualde baten gainetik, herri oso batek berba egin du, gaur, Gernika-Lumon. Eta herri horrek Urdaibain Guggenheimek gura ez duela garrasi egin du. Eta egiten jarraitzeko asmoa du.

<https://eh.lahaine.org/guggenheim-urdaibai-makroproiektuaren-kontra-mobilizatu>